BIZITEGI ERAIKINA — SAN JUAN 8

D MAILA



Egilea eta data: Gurruchaga; 1910

Deskribapena

Kantoiko eraikina, erdisotoa, bastardea eta lau goi oin dituena, gehi 1927ko bi jasodura, lehena mantsardatua eta bigarrena atzeraemana. Harlanduzko fatxada, kantoiko alakan zurezko begiratokia duena.

Babes erregimena

1.- Erregimen orokorra.
Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.
Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.

2.- Berariazko erregimena.
A. Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: jasodura mantsardatuak (5. eta 6. goi oinak).
B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak; begiratokia.
C.- Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk: erregimen orokor hori arautzeko baldintzak betetzearekin loturikoak.